



2003/03/20ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)**2003ko otsaila**

BIDAIARIEN SARRERAK ETA GAUALDIAK % 2 GUTXITU DIRA 2003KO OTSAILEAN

Estatuko bidaiarien gehikuntza (% 3) ez da nahikoa izan atzeritar bisitarien beherakada (% -15) berdintzeko.

2003ko otsailean, 91.613 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 1.500 sarrera gutxiago, hau da, % 2ko jaitsiera, EUSTATEk eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak % 6 gehitu dira Bizkaian, eta hurrenez hurren % 7 eta % 6 urritu dira Araban eta Gipuzkoan.

Estatuko bidaiarien sarrerak % 3 gehitu dira Euskal AE osoan. Bidaiari kopurua, berriz, % 15 urritu da. Estatuko bidaiariak nabarmen gehitu dira Bizkaian (% 15), eta jaitsi egin dira bai Araban (% -6) bai Gipuzkoan (% -5). Atzerriko bisitarien kopurua jaitsi egin da hiru herrialdeetan: Araban (% -17), Bizkaian (% -16) eta Gipuzkoan (% -11).

Estatutik datozen bidaiarien artean, ugaritu egin dira Madrildik, Valentziako Erkidegotik, Gaztela eta Leondik eta Euskal AEtik bertatik datozenak. Gutxitu egin dira, aitzitik, Andaluziatik, Kataluniatik eta Galiziatik etorriak, besteak beste. Atzerriko bidaiarien artean, gutxitze nabarmenenak Frantziatik, Erresuma Batutik, Portugaldik, Italiatik eta Alemaniatik etorrien artean gertatu dira.

2003ko otsailean, 161.390 gaualdi erregistratu dira. Horrenbestez, aurreko urteko hil berean baino ia 4.000 gutxiago izan dira, hau da, % 2 gutxitu dira ehuneko-balioetan. Egindako gaualdien kopurua % 3 hazi da Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, ordea, % 8 eta % 5 txikitu da, hurrenez hurren.

Bidaiarien batez besteko egonaldia, iazko otsaileko 1,77 egunetatik aurtengo otsaileko 1,76 egunetara laburtu da. Laburtze horrek Arabari (% -1) eta Bizkaiari (% -3) eragin die; Gipuzkoan, aldiz, % 2ko luzatzea gertatu da. Plazen betetze-maila beheratu egin da, 2002ko otsaileko % 36,9tik aurtengo otsaileko % 33,3ra; gelen betetze-maila, berriz, % 5 goratu da aldi berean.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 9) eta gutxitu gaualdiak (% -4)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 4.612 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2003ko otsailean, aurreko urteko hil berean baino % 9 gehiago: % 12 ugaritu dira Gipuzkoan, % 10 Bizkaian, eta % 3 Araban. Euskal AE osoan erregistratutako hazkundearen eragileak atzerriko bisitarien gehikuntza (% 39) eta Estatukoena (% 8) izan dira.

Nekazalturismoaren sektorean 8.808 gaualdi egin dituzte, 2002ko otsailean baino % 4 gutxiago. Beheratze hori Araban (% -24) eta Bizkaian (% -7) jazo da; Gipuzkoan, aitzitik, % 7ko goratzea izan da.

Bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu egin da, iazko otsaileko 2,17 egunetatik aurtengo otsaileko 1,91 egunetara. Hau da, % 12ko murriztea gertatu da. Ildo berean, plazen betetze-maila % 14 beheratu da, eta gelena % 13.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500. Faxa: +34-945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.:+34-945 017 506. Faxa: +34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
02/2003	%	02/2002	%	D%		02/2003	%	02/2002	%	D%		02/2003	%	02/2002	%	D%		02/2003	%	02/2002	%	D%	

HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARI-SARRERAK	91.613	100	93.109	100	-2	17.934	100	19.349	100	-7	39.881	100	37.691	100	6	33.798	100	36.069	100	-6
Estatukoak	72.322	79	70.543	76	3	15.349	86	16.245	84	-6	30.761	77	26.789	71	15	26.212	78	27.509	76	-5
Atzerrikoak	19.291	21	22.566	24	-15	2.585	14	3.104	16	-17	9.120	23	10.902	29	-16	7.586	22	8.560	24	-11
GAUALDIAK	161.390	100	165.192	100	-2	29.255	100	31.949	100	-8	73.795	100	71.752	100	3	58.340	100	61.491	100	-5
Estatukoak	123.605	77	119.795	73	3	24.467	84	26.071	82	-6	53.702	73	47.566	66	13	45.436	78	46.158	75	-2
Atzerrikoak	37.785	23	45.397	27	-17	4.788	16	5.878	18	-19	20.093	27	24.186	34	-17	12.904	22	15.333	25	-16
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,76		1,77		-1	1,63		1,65		-1	1,85		1,90		-3	1,73		1,70		2
PLAZAKO BETETZE MAILA	33,30		36,93		-10	33,10		42,39		-22	37,08		38,77		-4	29,57		32,91		-10

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARI-SARRERAK	4.612	100	4.212	100	9	744	100	724	100	3	1.636	100	1.488	100	10	2.232	100	2.000	100	12
Estatukoak	4.400	95	4.060	96	8	720	97	692	96	4	1.540	94	1.456	98	6	2.140	96	1.912	96	12
Atzerrikoak	212	5	152	4	39	24	3	32	4	-25	96	6	32	2	200	92	4	88	4	5
GAUALDIAK	8.808	100	9.156	100	-4	1.224	100	1.612	100	-24	3.344	100	3.584	100	-7	4.240	100	3.960	100	7
Estatukoak	8.120	92	8.484	93	-4	1.172	96	1.408	87	-17	2.984	89	3.412	95	-13	3.964	93	3.664	93	8
Atzerrikoak	688	8	672	7	2	52	4	204	13	-75	360	11	172	5	109	276	7	296	7	-7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,91		2,17		-12	1,65		2,23		-26	2,04		2,41		-15	1,90		1,98		-4
PLAZAKO BETETZE MAILA	14,54		16,92		-14	10,90		16,69		-35	17,51		19,72		-11	14,01		15,06		-7

Iturria: EUSTAT